



## INFORMAZIO ORRIA

# Bizi aseguruak (heriotza kasuetarako)

### Nork aurkeztu behar du? (2017-12-30etik aurrera sortutako zerga egitateak)

1. Ohiko bizilekua Espainian duten **bizi aseguruaren onuradunek**, baldin eta aseguratuaren ohiko bizilekua Gipuzkoan badago sortzapen egunean (normalean, heriotza eguna).

Oro har, **Gipuzkoako araudia** aplikatuko da. Hala ere, **Estatuko araudia** aplikatuko da, eta ez Gipuzkoakoa, baldin eta aseguratuak ohiko bizilekua Gipuzkoan badu sortzapen egunean, baina zergaren sortzapen egunaren aurreko 5 urteetako denboraldian egun gehiago pasa baditu lurralde erkidean. Kasu horretan, 670 eredia bete behar da, eta ez 672 eredia.

- *Zein autonomia-erkidegotako araudia aplikatu behar den zehazteko, kontuan izan behar da aseguratuak zein autonomia-erkidegotan igaro duen egunik gehien sortzapen egunaren aurreko 5 urteetako denboraldian, kalkulu horretarako Euskal Autonomia Erkidegoan igarotako egunak kontuan hartu gabe.*

2. Ohiko bizilekua **Gipuzkoan** duten **bizi aseguruaren onuradunek**, baldin eta aseguratuaren ohiko bizilekua atzerrian badago sortzapen egunean (normalean, heriotza eguna).

3. Bizi aseguruaren onuradunak **atzerrian** badu ohiko bizilekua, atalarekin kontsulta egin aitorpena aurkeztu behar duen ala ez jakiteko (943 113 000).

### Zenbat egun dauzkazu aitorpena aurkezteko?

Urte bat sortzapen egunetik (heriotzaren egunetik) kontatzen hasita (2019ko Otsailaren 21a baino lehen izandako zerga egitateentzako epea sei hilabetekoa da).

### Zein pauso egin behar dira?

#### 1. Bildu itzazu ondoko agiriak:

- ❖ **672 eredia**, hemen eskura dezakezuna:
  - baimendutako estankoetan.
  - interneten: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna/zergak/eredua/672>. Helbide horretan zerga honi buruzko informazio guztia duzu baita bizitza aseguruetako agiri pribatuaren eredu bat ere.
- ❖ **Bizitza aseguruetarako agiri pribatua** (jatorrizko alea eta kopia). Interneteko helbide berean informazio guztia eta bizitza aseguruetako agiri pribatuaren eredu bat eskura dezakezu.
- ❖ **Heriotza agiri literalaren fotokopia** (Erregistro Zibilean ematen dute)
- ❖ **Aseguratuaren eta bizi aseguruaren onuradunen Nortasun Agirien fotokopia**
- ❖ **Ahaidetasunaren justifikazio dokumentala** (hala nola, famili liburua). Ahaidetasun edo harremana 3. Taldekoa bada (lehengusu, koinatu/a, arrotza..), ez da beharrezkoa agiri hori aurkeztea.
- ❖ **Bizi aseguruaren kontratuaren fotokopia edo aseguru-etxearen ziurtagiria**, non kopurua, onuradunak eta ondorio data ageri diren.
- ❖ Polizan izen konkreturik ez bada ematen, baizik eta "legezko jaraunsleak", ondorengo hau aurkeztuko da:
  - Azken Borondateen Erregistro Orokorreko ziurtagiriaren fotokopia.
  - Testamentuaren fotokopia.
  - Testamenturik ez balego, **oinordekoen aitorten judiziala** edo **ezaguntasun akta** aurkeztuko da.

#### 2. Bete eredia jarraian adierazten den eran:

- ❖ **Subjektu pasiboa**: dirua jasotzen duenaren datuak.
- ❖ **Kausagilea**: aseguratuaren (hildakoaren) datuak.
- ❖ **Bizitza aseguruaren poliza**: onuradunak jasotako kopurua.
- ❖ **Ordaindu beharreko kuota**: 3/1990 Foru Arauan ezarritako eskalaren arabera kalkulatzeko da.

#### 3. Emaitza ordaintzekoa bada, eraman 672 eredia banketxe edo kutxa batera eta egin bertan ordainketa. Gero, ekarri agiri guztiak gure bulegoeta